

## **'Bikin bat in' kanta** **(Hitzak: Estitxu Arotzena)**

Toberaren soinuak zulatu du Agiña  
Mairubaratzeetatik sentitzeko adina  
Altzairuzko oinarria intxaurren hosto arina  
Zer\_izan nahi genuke orain oroimen bagina  
Agiña, adina,  
Hosto arina, Agiña, adina, bagina...

**Bikin batin batin biak ume baten bi sendiak**  
**bikin batin batin biak errekek eta mendiak**  
**Oinez Lesakan erditu,**  
**Tantirumairuk biditu**  
**Zortzi zazpisei bortz lau hiru bikin batin**

Adiskide, bide lagun, ikaskidea  
Euskara da gure, zure eta nirea  
ttiki ttaka ttipi ttapa, oroimenaren bidea  
zer ginen jakin behar da izateko librea  
bidea, nirea,  
ikaskidea, bidea, nirea, librea

**Bikin batin batin biak ume baten bi sendiak**  
**bikin batin batin biak errekek eta mendiak**  
**Oinez Lesakan erditu,**  
**Tantirumairuk biditu**  
**Zortzi zazpisei bortz lau hiru bikin batin**